

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Asentxio Sarriegi Asteasuinzarra

*Donostia,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Altzako Irasoene-Goia baserrian jaioa. Lau senide ziren. Aita bertakoa zen, nahiz eta Ameriketan ibili hainbat urtean, eta ama ere gertukoa, Mateo baserrikoa. Altzan ibili zen eskolan Asentxio, eta gero baita Herreran ere, fraideetan. Baina ez luzaroan. Baserriko lanetan aritu da umetatik. Esnea partitzen zuten eta tratua plazara eramaten zuten, zaldi-karroarekin Donostiara joanda. Ididemetan ibilia da. Ehiza zalea.

Zintak

DON-105

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-19
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Desagertutako baserriak; tabernak eta jatetxeak

- **Erref:** DON-105/002
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:03:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Lehen baserri gehiago zeuden. Altza kale bihurtu dela dio. Intxaurrendoko eta Altzako baserriak aipatzen ditu, gaur egun desagertuak. Inguruko sagardotegiak, tabernak eta jatetxeak.

2. Familia; aita Ameriketan ibilia

- **Erref:** DON-105/004
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:06:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Neskamea eta morroia zituzten. Lau anai-arreba ziren. Ama Mateo baserrikoa zen, eta aita bertakoa. Altza herria zen, eta Gartziategiraino iristen zen. Amona etxean bizi zen. Aita Ameriketara egon zen hamabi urtean. Izeba ere bai.</p>

Transkripzioa

- Gu izaten giñan ordun, guk beti neskamia eta morroia izateko zea deu, kanpoko jendiak, eta, gaiñea, etxian lau-anai-arreba.

- Eta gurasuak nunguak ziran?

- Gurasua, aita, hemengua.

- Eta ama?

- Ama Mateo basarrikua.

- Orduan, ingurukua?

- Bai, bai, poligonuan dao etxe hoi, Mateo hoi, [mataderako] hortan.

- Eta orduan hau, Altza, herriya zan, ez, zu jaio ziñanian?

- Bai, ta hau, gaiñea, gaur baiño haundiyo. Oain zea asko dauka kendua Astigarragak hor, baiño lehen, jolin, hor Gartziategi sagardotegiraiño, Astigarragan toki askon sartzen zan.

- Eta hemen aiton-amonak eta zuekin bizi ziran?

- Bai, nik... aitona ez naiz gogoratzen baiño amona bai.

- Amona bai. Zer zan, aitan ama?

- Aitan ama, bai. Eta orduko beste aitaren arreba batekin basarriyan ezkontuta jarriya zeon, ta aita in zan Ameriketara jun. Eta Ameriketatik etorri zan hamabi urte pasa ta geo eta geo ama izan gendunakin, hasi zian, eta gure aita hoi geratu zan basarrin eta lehen zeona kanpoa jun zan.

- A bai? Orduan, aldaketa...?

- Bai, aldaketa izan zuen, bai.

- Eta bestia nora jun zan?

- Bestia jun zan Pasaiko goiko alde hortaa, Iparragirre edo.

- Eta zure aita Ameriketara nolatan jun zan, ba?

- Bueno, garai haitan, badakizu, hemen lan gehiyegiik ez zuen izango eo, bizimodu zea izango zan, zeatik beste izeba bat´e —amen ahizpa bat— bazan han Ameriketara ta han ganauakin ta esniakin jarri ta. Jendiak esaten zun gero harritzekua zala harek eginda zaukan klientelakin handikan nola bueltatu zan honea, baiño gauzak hola tokatutzen dia nunbait.

- Eta ez zitzaion damutu ez bueltatzea ala...?

- Ez, ez.

- Berak nahi zulako etorri zan?

- Bai, bai, bai. Etorri zan ta ezkontu zan nunbait. Joateako igual zaukan aixkidia zeatua edo, ez dakit. Ez dakit hori, baiña.

3. Jolasak; ehizarako zaletasuna, umetatik

- **Erref:** DON-105/006
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:06:34. **Bukatu:** 00:10:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Tabak, kanikak. Uzaia. Gurdiaren pertikan igota ibiltzen ziren, baina arriskutsua zen. "Buleketan". Ehizarako zaletasuna ere umetatik du. 14 urterako bazekien tiratzen. Tiragomarekin ere ibiltzen zen eta erreklamoan. Txori motak aipatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Hemen umetako jolasak zuenak zeintzuk ziran?
- Jo, ba, kanikak ordun. Ta tabak eta.
- Tabetara zuek ere jolasten zenuten?
- Bueno, mutillak´e igual sartzen giñan neskan tartian ta. Baiño gehiena zean, kanikakin mutikuak. Eta geo bazan, zea, "goitik behera" esaten zaion zea bat, beste... kaku batekin, errueda batekin ibiltzen zan...
- A, bai, uzaia?
- Hori da, bai.
- Eta zuek iten zenuten uzaia?
- Bueno, hoi lagunak batekin ingo zitun, noski. Ez, guk ez genun egiten. Zeatikan hoi buelta ondo hartu ezkeo-ta soldiatuta jartzen zuen ta. Ez, baiña ez daukat nik goguan guk egiten genunik.
- Eta gurdi gainean pertikan igota ta holakorik bai?
- Bai.
- Eta nola izaten zan hori?
- Bueno, pertikan iyo... Nik ez dakit zuk nola galdetu nahiko diazun. Gurdiyan...
- Jolasik iten zenuten gurdiyan?
- Bai, baiño ikusten baziguen, peligrosua izaten zan, zeatikan karga puxkat baldin bazenun atzian —gu´re lau anai-arreba giñan eta—atzera igual altxatzen zenun, eta hurrana, pues, jexten bazan bat, aurea igual erotzen zan ta azpin hartzeko beti bildurrakin aita ta ama ta. Hoi...
- Eta beste jolasik, hola, ezkutaketan ta harrapaketan ta...?
- Bueno, bai, garai batian "buleketan" esaten geniyon [...], bai.
- "Buleketan"?
- Bai.
- Eta ez dakit zure ehizarako afiziyua umetan hasi zan ala ez.
- Ehizeako? Bai, aita haundiya zun afiziyua eta guk aitan zeakin, permisuaikin, nik hamalau urte baiño lehen atea nun permisua ehizian, aitan baimenakin. Eta aita beak erakusten ziun. Bueno! Lana in [eztaatikan] ta "eskoopeta txiki batekin jaiyian, zea, txoriyai tiratzeko bi tiro utziko dixkit" edo, "joeee", engaiñatzen giñuzten ta. Orduan afiziyua sartu ta bueno!
- Eta tiragomakin ta hola?
- Baita´re, baita´re. Tiragomak´e bai.
- Tiragomakin txoriyak harrapatzen?
- Bai.
- Ze txori?
- Bueno, ordun, ze txori? Kanpoko txoriyak. Pintxanak eta burrioyak eta txantxangorriyak eta... harrapatzen zana!
- Harrapatzen zana?
- Harrapatzen zana.
- Eta ze iten zenuten gero harrapatutakoekin?

- Bueno, apiziyua zenun harrapatzekua behiñipin. Ta osatzen baziñun 4-5 bat edo, pues, jateko igual ta. Hori... goxua izaten zan txoriya!

- Eta erreklamuakin?

- Baita ere ibilitu gea. Bai.

- Eta hori nola izaten da?

- Bueno, zuk erramu bat edo moztutzen dezu eta mutturak ateatzen [zizkatzen] ta han kanuto batzuk sartu eta beste zea batzukin... ze esango dizut, ba, nik? holako mouko zarbazta leunak iten ziñun ta han bixka ematen zenun eta han jarri. Ta txoriya kaiolan jarri ta haik deitzen zuen ta etortzen zian ta...

- Eta pegatuta geratzen zian?

- Bai, pegatua geatzen.

- Hor bixka...

- Bixkakin.

- Bixkakin pegatuta ta...

- Bai, ordun harrapatu korrika junda ta.

- Eta hola bixkakin pegatuta geratzen zianak ze txori zian?

- Bueno, karnaba ta pintxana ta klase guzitik, gallupa ta тариña ta... oseake, izenak.

- Eta kanturako balio zuten txoriyak-eta saldu iten zian?

- Bueno, bai, bai, ordun´e saltzen zian. Ez zun diru haundiik ingo, baiño behiñibin.... Zuk hola harrapatzen ziñuna, batek esaten zun: “Karnaba bat jaso [dakiak]” edo “тариña jaso [dakiak]” eta. Bueno, pues, holaxe.

4. Usotara, kanpora ere bai

- **Erref:** DON-105/008
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:10:39. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Eskopetarekin tortoiloak harrapatzen zituen. Usotara ere joaten ziren, kanpora: Avilara, Toledora... Ehizatzeke usoa gustatzen zaio, jateko txoria. Ehizatzeke zailenak aipatzen ditu. Basurdetan ez da asko ibili.

Transkripzioa

- Hemen, hemen ordun bazan, hemen hemen, oain galdu da asko, baiño tortoillua deitzen zayona, uso txikiya bezela. Eta gero, pues, behin hogeita hamar bat urterekin o hola, aita sos batzuk ematen zituen, ta lanak iteagatikan ta lanian laguntzeagatik eta pues kanpoa joaten ziñen. Beti kanpuan pasada o zea gehiyo izaten zun usuak eta gauzak eta...

- Eta nora joaten ziñaten?

- Bueno, juten giñan Avila're bai, Toledo're bai... Beno, baiño hoik ya bastante hazi ta geo, baiña, bai.

- Eta zure txori gustukuena edo hola zein gustatzen zitzaizun zuri?

- Bueno, jateko txoriya da goxuena, baiño gaiñearakun usua, usua gustatu zaigu ehizian.

- Ehizian usua? Eta zergatik? Harrapatzeke zaillena zein da?

- Bueno, usua ta eperra... Eperra zaillena, ta oillagorra ta...

- Oillagorra?

- Bai.

- Ta zuk txoritan ibili izan zea, ta ez dakit basurdetan eta beste...?
- Ez naiz ni basurdetan, ez naiz ibilli izandu. Bota izandu det e? Bai, hemen gaiñea, etxeko terrenuan gaiñea, baiño ez naiz basurde zalia izandu ni.
- Ez?
- Ez.
- Txoriya nahiago?
- Bai.

5. Jaunartzea egin bitarte, eskolara

- **Erref:** DON-105/010
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:12:12. **Bukatu:** 00:15:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolara Altzan bertan joan zen lehenengo eta gero Herreran, fraideetara. Ez du maisuaren izena gogoratzen. Oinez joaten ziren. Altzan euskaraz ere ematen zuten eskola, Herreran dena erdaraz. Liburuak, pizarra. Jaunartze Handia egin orduko utzi zuen eskola.</p>

Transkripzioa

- Eskolara nora juten ziñeten?
- Gu juten giñen aurrena Altza, honea, herria. Eta gero urterik gehienak behiñipin Herreran, frailietan.
- Eta Altzan nun zeon eskola?
- Eskola oain Jubilatua dagon tokiyan, elizan aurrian bertan.
- Eta hor ze ibiltzen zineten, neska-mutilak elkarrekin ala mutilak eta neskak aparte?
- Aparte. Baiña bitatikan zan eskola, neskena eta mutillena.
- Eta zuen maixua zein zan?
- Ño! Izena ezin zait oain gogoratu! Baiño bai, maixua genun. Ez naiz izena gogoratzen.
- Ze zan, oso gogorra? ala ez?
- Ez, ez, normala zan. Eta hor... hor ez zan. Baiña hoi... Hor hasiko giñan gu zazpi bat urtekin eo, ta urte paren baten ibili ta beste bi [...] frailietan zeatu giñan.
- Eta hemendik horra, oiñez?
- Oiñez. Onbreee! Ordun oiñez. Onbree! Bai. Ordun autobusik eta ezer´e ordun.
- Eta zuek erderaz ikasiko zenuten dana.
- Bueno, frailietan bai.
- Hemen eskolan ez?
- Ez, hemen ematen zuen euskeraz´e ordun. Bilingüe bezela edo, bai.
- Eta ze ikasten zenuten hemen? Eskribitzen ta?
- Bai, aitzen giñen. Aitzen giñen. Hemendik eskola haundiya ez gendun eaman frailieta jun bitartian, baiña... Han puxkat, baiña... Hantxe, sumar, dividir ta ...
- Eta idazteko-ta pizarriña?
- Pizarriñak. Bueno, libro batzuk bagiñuen. Baiño bai, eskolan pizarrian

zeatzen zan ta... zuk zauden puestun´e pizarra izaten zenun, baiña...

- A bai? Izaten zan pizarriña bat, pizarra txiki bat?

- Bai.

- Eta, bestela, tinta?

- Tintaz´e bai. Bai, bai. Gero eskribitzen ta.

- Eta gero, Herrerara, La Salleko frailiena?

- Bai, La Sallekuak izango ziala pentsatzen det nik fraile hoiek /frailioyek/.

- Eta zenbat urtera arte ibili zinen han?

- Bueno, nik ya hamar urte in nitunian... Ordun komuniyua hamaika urtekin iten genun bigarren komuniyua eta etxian jendia falta zuen laneako ta eskolatik... Ta eskolaako baiño gogo gehio gaiña laneako. Eskolan ez genuen... gogoik pe izaten giñen eskolan. [Geo hoi] damutu [in bihar deu], baiño...

- Nahio kanpuan ibili.

- Bai, bai, bai.

- Eta frailiak zer ziran oso gogorrak? Diziplina egongo zan, ezta?

- Bueno, bai, diziplina bazuen, baiña normala billatzen det /billatzet/ nik.

- Eta jo-ta iten zuten?

- Bueno, bai, bai, haik gaizki iten bazenun, jotzen zun, reglakin ta.

- Behatz puntetan?

- Baa!

- Eta esaten dute handik ondo preparatuta irteten zala jendea.

- Beno, baiña gu denboak pe atea, garai haitan hamaika urtekin eskolatik geatu ta lanian hasi hemen. Aber... Pixkat ikasi bihar zenun garaian, esateko, urteik zeenak.

6. Dotrina; mezetara igandero

- **Erref:** DON-105/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:15:44. **Bukatu:** 00:18:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Dotrina Altzako elizan Don Felix Amiano tolosarrarekin ikasi zuten. Jaunartzea egiteko jakin beharra zegoen. Eskolatik aterata joaten ziren. Mezetara, jaiero; goizean goiz. Bideak nolabaitekoak ziren, eta auzolanean konpontzen zituzten.

7. Bezperak eta misioak

- **Erref:** DON-105/013
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:18:22. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

Arratsaldetan bezperak. Etxera joandakoan gurasoek galdetu egiten zieten ea nork eman zituen. Maiatzeko loreak. Aste Santua. Misioak, fraideen sermoiak; moja eta apaizgai asko izaten ziren ondoren.

8. Ama Donostiara joaten zen tratuarekin

- **Erref:** DON-105/015
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:21:06. **Bukatu:** 00:22:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak

Laburpena:

Baratzean denetik zuten. Ganadua ere bazuten. Ama Donostiara joaten zen bidean esnea partituz, zaldi-karroarekin. Berdura Grosera eramaten zuen. Elurra egiten zuenean, zaldiak ezin ziren joan, eta behia eramaten zuten karroarekin.

9. Ereiteko, ilargiari begira

- **Erref:** DON-105/017
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:22:58. **Bukatu:** 00:25:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Haziari ereiteko ilargiari jaramon egiten zioten. Ilbeheran ereiten zuten ia dena. Urte sasoi bakoitzean zer ereiten zuten azaltzen du.

10. Lurra lantzen; artoa eta babarruna

- **Erref:** DON-105/018
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:25:11. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserríko lanak » Artoa
- Baserría » Baserríko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko tresnak

Laburpena:

<p>Lurra nola lantzen zuten. Artoa eta babarruna. Marka erabiltzen zuten. Goldea, idi parearekin. Lurra nola prestatu. Mazoa. Alperra. Eskuz ereiten zuten hazia, eta atzetik aitzurrarekin estali. Simaurra.</p>

11. Ganadua; jatena, iratzea eta belarra

- **Erref:** DON-105/019

- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:30:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

22 ganadu buru izatera iritsi zen. Lau idi eta dozena bat behi, esnetarako. Baserriak lur asko ditu. Goizeko bostetan hasten ziren lanean. Arbia eta erremolatxa. Iratzea erabiltzen zuten azpiak egiteko. Metak egiten zituzten. Segan, auzolanean. Igitaia.

12. Behiak eta txahalak

- **Erref:** DON-105/021
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:33:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Putzueta baserrira eramaten zituzten behiak zezenetara. Etxean zezena izanez gero, lau edo bost duro aurrezten zituzten. Umatu, susara... Txahalak etxean hazten zituzten normalean. Esne gutxi zutenean, saldu ere bai. Esnearen prezioa. Harakinari saldu, eta oinez eramaten zituzten txahalak, Groseko hiltegira.

13. Txerria hiltzen zutenean

- **Erref:** DON-105/023
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:33:50. **Bukatu:** 00:37:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Urtean bi txerri hiltzen zituzten batzuetan. Aitak hiltzen zuen, eta beraiek lagundu, mahai baten jarrita. Sutan erre, eta gero zatitu. Txerrikiak. Gazitu, kutxa batean. Gibela gosaltzen zuten. Odolkiak eta txorizoak. Txerri muinak opari. Goserik ez zuten pasatu, baina ogi falta bai.</p>

14. Arrautzak eta oilaskoak

- **Erref:** DON-105/025
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:37:30. **Bukatu:** 00:38:35

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Arrautzak etxean jan ordeztatu egiten zituzten. Sardina zaharra ekartzen zuten bueltan. Herriko festetan, San Martzialan oilaskoak jaten zituzten, familiakoak gonbidatuta.

15. Ura eta argia

- **Erref:** DON-105/026
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:38:35. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxeko lanak amak eta neskameak egiten zituzten. Aska batean garbitzen zituzten arropak. Iturrira joaten ziren ur bila, umetan, baina gero etxean jarri zuten. Argia bazuten, baina kaskarra. Kinkea, kandila, farola.

16. Otorduak asko, lana ere bai

- **Erref:** DON-105/028
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:40:56. **Bukatu:** 00:42:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Otorduak. Gosari txikia eta gosaria, bazkaria, merienda eta afaria. Iluntzean ohera. Aita gurea erreztatzen erakusten zien aitak. Jaiki, goiz, udaran behintzat. Babarruna, ia egunero. Haragia, patata, bakailaoa... Denek batetik jaten zuten.

17. Lurreko sua eta ekonomia

- **Erref:** DON-105/030
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:43:01. **Bukatu:** 00:45:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Beheko sua eta ekonomia, biak zituzten. Ganaduantzat jatena egosteko erabiltzen zuten lurreko sua, baita taloak bero mantentzeko ere. Neskamea, laratza. Eltzeak. Hauspoa. Gaztainak erretzen, danbolinean.

18. Egurrezko komuna

- **Erref:** DON-105/032
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:46:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Komuna egurrezkoa zen, ukuilu gainean. Komuneko papera egunkari zatiak.

Transkripzioa

- Ordun komuna zan ganauen atzian egiten zan ximorra bota eta ordun egurrezko komun bat zenun; eta ximor pilla haren gaiñea eiten zenun in biharra.
- Ordun ikuillu gaiñian?
- Ikuillu gaiñian.
- Eta komuneko paperik eta egoten zan?
- Bai, bai.
- Bai?
- Bai, periodiko puskan batzuk edo jarrita e? Ordun kumuneko papera...
- Aza hostuak bestela?
- Bai, igual hoik'e, igual hoik'e!
- Baiña orduan oingo bezela ez zeon komuneko paperik, ez zan erabiltzen.
- Ez, ez, ez zan ordun, nik ez nun ezautzen behiñik behin.

19. Dantzara; apaizaren kontrola

- **Erref:** DON-105/035
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:49:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>16 urterekin hasi zen irteten, baina aurretik ez. Dantzara joaten ziren Astigarragako Bentara, Oialumara... Soinu-jotzaileak. Dantzan bere kasa ikasi zuen. Apaiza zaintzen ibiltzen zen, eta kongregaziotik bota igual, neskekin dantza egiten ikusiz gero. Apaizari ,"Ave Maria Purisima".</p>

Transkripzioa

- Gaztetan, ehizaz aparte, ze gustatzen zitzaizun itia?
- Bueno, behin hamasei bat urtekin eo [...] ateatzen [hasten] giñan, baiña bitartian ez zizuen etxian uzten´e ta. Oainguk bezelaxe. Dantzara harea o honea o ikastea behiñipin.
- Ta nora juten zineten dantzara?
- Bueno, hemen orduan hor Astigarragako Benta, ez dakit aitzea badezun. Han soiñua jotzen zuen ta hara joaten giñan. Gero Oialuma eo, hor Astigarragan´e bai. Ta bueno.
- Eta nor egoten zan hor Astigarragako Bentan soinu-jotzen?
- Soiñu-jotzen bat, soiñujotzaile bat eoten zan, beste bat tanbor zea batekin ta hantxe. Akaso 6-8 neska [juntatuko] zian ta beste 6-8 mutil, baiña... dantzan dibertittu orduan.
- Eta dantza iten nun ikasi zenun zuk? zure kasa?
- Bueno, ibiltziakin beti ikasi iten dezu zeozer, ta... hor, holaxe, ba, Bentan eo Oialume esaten dan hortan ta.
- Ta neskekin dantza itia orduan ondo ikusiya zeon?
- Bueno!
- Ala hobeto soltian dantza itia?
- Bai, izan zan lehen esan dizudan... guk dotrinan-ta in genun zean Don Felix Amiano hori herriko festak zianian-ta neskakin lotuta ikusten baziñun, kongregaziotik igual botatzen zun harek. Kanpoa. [Ze] itekua, baiña garai haitan...
- Bai, hala zan, gaizki ikusiya zeon ta.
- Hoixe ba. Zea, oain... ordun eskolatik atea ta errekreoan bazabiltzan ta apaiza ikusten bazenun, jun ta "Ave Maria purísima" ta "Ave Maria purísima" ta... "Purísima"! Oain, zea, beak nesketan iñor baiño okerro!

20. Dantza eskatu eta igual kalabaza

- **Erref:** DON-105/037
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:49:33. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neskengana mutilak gerturatzen ziren, dantza eske. Kalabazak. Etxe laguntza. Auzoko neskei laguntzen zieten etxera.

Transkripzioa

- Bai, neskak neskakin ibiltzen zan ta mutillak jun behar zun.
- Eta ze, ze izaten zan, dantza iteko ta formularik...
- Ez, beno, joaten ziñan zu ta "faborez dantza ingo degu?" edo; ta libratzen bazien "pues bien" ta ez bazien, segi kalabaza ta aurea, beste batengana.
- Ta kalabaza asko ematen zuten?
- Bueno, ordun bastante.
- Bastante.
- Bai, bai, ordun bastante. Ordun lotsatiya zan jendia, ordun, bai...
- Eta gero etxe-laguntza ta izango zan?
- Baita're, baita're. Beti izan dian bezela hoik.

- Eta orduan hemen'e, zer, beste baserri batzutara ta?
 - Bai, bai, hemen auzuan bazian hemen bi ahizpa beheroxio... Zu atzo eon ziñan...
 - Anjel?
 - Ez, Arrieta zea hoi.
 - Bai, Bixenta ta Maritxu.
 - Bixenta, Bixenta, Maritxu, beste bi ahizpa bazituzten hoik, eta hoik denak. Eta denak jaiyetan pues benta horrea juten zian; eta ordun hoik gu baiño zahartxio zian baiño gure anaiya ta igual gero pues etxea jun.
 - Laguntzera?
 - Laguntzera, berakin geratu ta...
 - Baiña ez zieten utziko asko arrimatzen?
 - Edo bai, edo bai, hoi beti izan da. Ta...
 - Baiña orduan dana pekatu zan?
 - Bai, hoi da, hoi da, hoi da.

21. Dena sekretu: jaiotza, hilerokoa...

- **Erref:** DON-105/038
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Umeak zikoinak ekartzen zituela esaten zieten, Frantziatik. Ez zuten galdetzen, baina bizimoduak erakusten zien. Neskek hilekoari buruz ere ez zuten azalpenik jasotzen etxean.</p>

Transkripzioa

- Eta zuei etxian edo esplikaziyorik ematen zizueten, umiak nundik zetozen eta holako gauzak?
 - bai zea, ordun? Jesus!
 - Ez zan hitz eiten?
 - Bueno, bueno... Umiak ordun zikoiñak!
 - Bai? Zikoiñak?
 - Zikoiñak ordun ekartzen zun Frantzitikan, zea, zikoiñak ekartzen zula... Jolin.
 - Ta zuek ez zenuten galdetzen?
 - Ez, baiña ez dezu galdetzen, ikusten dezu aita eta haren aurreko gauzek ez diala, sekretun dabiltzala ta zean ta... Baiño bizimoduak, urtiak joten ai zean bezela, beti zeorri jazten juten zea.
 - Klaro, bai, bai. Gaiñera baserritarrak errexago, ezta? Ikusita animaliyak eta...
 - Bai, bai, bai, beti zea da.
 - Kaletarrak igual zaillagua.
 - Bai, geo zuk ordun zea batek, zenbat emakumek (nik ez dakit, ez dia danak berdin izango), baiño hamabi-hamahiru urtekin emakume batek hillekua izatia... Ordun hemezortzi urte arte ta ze. Hillekua... amak eta erakutsi hillekua ta zer zan ta, ta zean? Ezta ezar'e holakoik.
 - Ezer'e?
 - Ezer ez.
 - Ta zer iten zuten? Galdetuko ziyoten, ba, etorritakuan amari "ama hau zer

da?" edo...

- Nik ez dakit, galdetu... Hala esan laike, hala esan laike, zeatikan bere gauzak zea odolakin ta ikusi ta apuratu behar dula esan laike.

- Bai, ez?

- Bai.

- Eta orduan ezkutuan, zuek enteratu ere ez ziñaten egingo?

- Ez, guk hiru anai ta arreba bakarra giñan gaiñea gu, ta baiño enteratu ez, seguru, seguru.

22. Tabernak eta sagardotegiak

- **Erref:** DON-105/039
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:54:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Tabernara ez ziren propio joaten; aitzakiaren bat behar zuten, ilea moztera joatea adibidez. Aste Santuan sagardotegiak txotxean egoten ziren irekita, eta joaten ziren. Petritegi, Gartziategi... Toka, boloak.

23. Altzako festak: haltza, harri apustua

- **Erref:** DON-105/041
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:55:06. **Bukatu:** 00:57:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Altzako festak nolakoak ziren. Haltzari azala kendu eta tente jartzen zuten arbola. Harri apustua. Bera ere ibiltzen zen idi apustuan. Urtean behin ziren apustuak. Bertsolariak, musika.

24. Gabon eskea eta bedeinkazioak

- **Erref:** DON-105/043
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:57:47. **Bukatu:** 01:00:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Santa Ageda eskean ez da ibili, baina Gabonetan bai, anaiarekin. San Juan bezperan sua egiten zuten eta lizarrarekin egindako gurutzea jartzen zuten atean. Erramu bedeinkatua, tximista zenean. Ur bedeinkatua. Arrosarioa, iluntzero.

25. Amona eta umetako ipuinak

- **Erref:** DON-105/044
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:00:04. **Bukatu:** 01:02:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Amona beltzez jantzita ibiltzen zen, buruan zapia zuela eta mantalarekin. Ipuinik ez du gogoan. Baserri batean sorginak zirela esaten zuten. Sacamantecas ere aipatzen zuten, umeak etxera erretiratzeko.</p>

Transkripzioa

- Eta amonak ze ohitura zeuzkan? Jantzi-ta nola iten zan, beltzez?
- Bai, maiormente ordun beltza asko zeatzen zan.
- Eta buruan zapirik?
- Zapiya ta mantala beltza ta, bai, bai. Burun zapiya, pañelua beltza ta.
- Eta ipuinik eta kontatzen zuen amonak?
- Kontatuko zitun, dudik ez dao. Harek´e jakingo zitun ta zean ta, baiño guri ya ahaztu eo.
- Hemen ez daukazu entzunda, ez dakit, sorginen kontuak ala...?
- Entzun izan dia, baiña hoi´re nunbait kontua da ta kontu horri ez dakit...
- Basajaunak, edo jentilak edo...
- Bai, bai, bai, izan zan hor basarri bat [behiñibin]zer horrekin, gabian ez dakit ze ateatzen zaiola ta lehen esan dezuna... izena nola esan dezu?
- Sorgina?
- Sorgiña. Sorgiñak ziala ta ez dakit zer ziala ta badakit... bua! kontua. Baiña...
- Eta umiei beldurra sartzeko, hola, ondo portatzeko, Sacamantecas eta holakorik bai?
- Bai, bai, horik denak aitatzen zian ordun. Oain baiño gehio! "Ibili hor kanpuan Sacamantecas laster dek hor!" ta zean ta. Beak etorrita igual bulla bat hemen atea ta "uii!", "Etxea aguro!".
- Eta izaten zan gauian, hola, espiritu txarrak edo gauian sorginak ibiltzen ziala edo, gauian ez ibiltzeko?
- Gauian ez ibiltzeko, zuri edade hortan /edadiortan/ hoi esango dizue, baiño geatzia izaten da /izatea/ txarra. Oseake, ahal danian atea.
- Zuek beldurrik ez zenuten orduan.
- Ez, ez, ez, ez. Bildurra? Ez zeon bildurrikan ordun.

26. Zinemara gutxi eta feriara ere ez nahi bestetan

- **Erref:** DON-105/046

- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:02:13. **Bukatu:** 01:04:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Aisia » Kultura » Zinema
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Zinemara joateko ohiturarik ez du izan. Feriara bai, joaten zen Hernanira, baina horretarako ere aitzakia behar zen. Tolosara ere bai, behiak eroatera. Aita ostegunero joaten zen Hernanira, baina garaiz bueltatzen zen beti.</p>

27. Perratzailea, al baitaria; txahalari ume egiten laguntzen

- **Erref:** DON-105/047
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 01:04:04. **Bukatu:** 01:08:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Perratzailearengana ere joaten ziren. Ferra motak. Albaitariari nola abisatu. Behiei nola lagundu txahala egiten. Soka lotu besoetan eta tira. Behiari ibilaraztea ona zen, ume egiteko.

28. Emaginak; Ubako Ama Birjina

- **Erref:** DON-105/048
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:08:12. **Bukatu:** 01:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Mercader baserriko emakumea ibiltzen zen emagin lanetan. "Zingirilla" ere konpontzen zuen hark, bularretatik esnea aterata. Umeak txikiak zirenean, Ubara joaten ziren asko, Loiolara. Atsolorra, emakumeen merienda.</p>

29. Soldadutza etxetik gertu

- **Erref:** DON-105/051
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:12:08. **Bukatu:** 01:13:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Soldadutza Iruñean hasi zuen. Etxeko nagusia teniente koronela zen, eta hari esker Loiolara ekarri zuten; Irunen egin zituen falta zitzaizkion hilabeteak, "asistente" bezala.

30. Sendabelarrak: berbena, plantiña, belar mina

- **Erref:** DON-105/053
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:13:22. **Bukatu:** 01:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Sendabelarrak. Berbena belarrarekin enplastoak egiten zituzten. Plantiña belarra zuzenean jartzen zuten. Belar minaren ura. Pasma belarra.

31. Luistarren kongregazioa

- **Erref:** DON-105/057
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:16:45. **Bukatu:** 01:18:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Kongregaziotik bota egiten zuten dantza lotuan arituz gero. Hilean behin joaten ziren luistarren kongregaziora; gero, ardo gozoa hartzen zuten. Konfesioak eta bekatuak.

32. Bedeinkazioak eta errogatibak

- **Erref:** DON-105/058
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:18:26. **Bukatu:** 01:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Udaberrian haziak bedeinkatzen zituzten, elizan edo etxean bertan. Errogatibak, euria egiteko: Santa Barbara ermitatik elizaraino joaten ziren apaizak, otoitzean.

33. Hileta elizkizunak, gaubeila

- **Erref:** DON-105/060
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:20:00. **Bukatu:** 01:22:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Hileta elizkizunak. Gaztetxoak ibiltzen ziren abisua ematen, eta gero afaldu eta gaubeila egiten. Lutoa.</p>

34. Su berria partitzen, mutikotan

- **Erref:** DON-105/062
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:23:41. **Bukatu:** 01:25:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Pazkoan, su berria partitzen zuten mutil koskorrek. Bedeinkatutako sua hartu, elizan; Sagarrondo adaxkak erabiltzen zituzten horretarako.

35. Saltzaileak atez ate; erosketak

- **Erref:** DON-105/063
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:25:13. **Bukatu:** 01:27:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Saltzaileak, baserriz baserri. Orraziak, bizarra kentzeko orriak... Kondoia ere saltzen zituzten. Traperoak. Arrain saltzailerik ez zen ibiltzen. Amak ekartzen zuen jatekoa, plazatik bueltan. Kontrabandoa: bizikleta piezak, puntalak... Oinetakoak. Aitak kontatzen zien hanka hutsik egiten zuela pilotan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com